



REGLAMENTO DE REGIMEN INTERNO DE LA COMPAÑÍA GORA ARRANTZALE GAZTEAK

En el año 2001, al igual que el resto de Compañías del Alarde, Gora Arrantzale Gazteak se constituyó en Asociación Cultural con el fin de poder seguir renovando el voto a la Virgen de Guadalupe todos los 8 de septiembre junto con las demás Compañías del Alarde de Hondarribia y Alarde Fundazioa Hondarribia; y así, conservar el auténtico y tradicional carácter del Alarde de Hondarribia, participar en él y difundir su razón histórica.

El presente Reglamento regula la forma en que los miembros de esta Compañía (esto es, los socios de la Asociación) participan en el Alarde de Hondarribia.

Artículo 1.

La **ASOCIACION CULTURAL "COMPAÑÍA GORA ARRANTZALE GAZTEAK" DEL ALARDE TRADICIONAL DE HONDARRIBIA** número de Registro AS/G/09356/2001 inscrita con fecha 8 de agosto de 2001, constituida al amparo de la legislación vigente se registrará por los Estatutos de la Asociación aprobados con fecha 09 de noviembre de 2013, por lo dispuesto en la Ordenanza Privada del Alarde Tradicional de la Ciudad de Hondarribia que en cada momento haya aprobado Alarde Fundazioa Hondarribia; y finalmente, por el presente Reglamento de Régimen Interno.

Artículo 2.

La Compañía Gora Arrantzale Gazteak está compuesta por los que siguen:

- Un Capitán.
- Tres Tenientes.
- Un abanderado.
- Un Sargento que acompaña a la Cantinera.
- Tres Cabos de Banda.
- Dos Cabos de Cola.
- Una Cantinera.
- Banda (txibilitos, redobles y parches).
- Tropa (paisanos armados).
- Cuberos.

A excepción de la Cantinera, esta Compañía estará compuesta por varones.

Artículo 3.

Los componentes de la Compañía Gora Arrantzale Gazteak deben desfilar con la debida dignidad y respeto al acto que se conmemora. Se deberá guardar la compostura durante todo el Alarde, quedando prohibido llevar pegatinas, distintivos, etc.

Asimismo, deberán cumplir con las normas dictadas por la Junta del Alarde y acatar en todo momento las instrucciones que reciban de los Mandos de la Compañía.

Artículo 4.

Todos aquellos mayores de ocho años que deseen desfilar en la Compañía Gora Arrantzale Gazteak deberán ser socios de la **ASOCIACION CULTURAL "COMPAÑÍA GORA ARRANTZALE GAZTEAK" DEL ALARDE TRADICIONAL DE HONDARRIBIA**. La solicitud de alta como socio, se deberá enviar a la Junta para que esta decida sobre su admisión. Los menores de edad necesitarán la autorización de sus padres o tutores legales.

GORA ARRANTZALE GAZTEAK KONPAINIAREN BARNE ARAUDIA

2001. urtean, gainontzeko Konpainien antzera, Gora Arrantzale Gazteak Konpainia Kultur Elkarte bilakatu zen Guadalupeko Amabirjinari egindako botoa, Alardeko gainontzeko Konpainiekin eta Alarde Fundazioarekin batera, urtero irailaren 8an berritzen jarraitu ahal izateko. Honekin, Hondarribiko Alardearen benetako izaera eta tradizioa mantendu, bertan parte hartzen jarraitu eta bere jatorri historikoa zabaldu nahi da.

Araudi honek Konpainia honetako kideen (hau da, Elkarteko bazkideak) Hondarribiko Alardean parte hartzea arautzen du.

1. Artikulua

ASOCIACION CULTURAL "COMPAÑÍA GORA ARRANTZALE GAZTEAK" DEL ALARDE TRADICIONAL DE HONDARRIBIA Kultur Elkartea, 2001eko abuztuaren 8an inskribatuta, AS/G/09356/2001 errolda zenbakiarekin eta indarrean dagoen legediaren babespean eratua, 2013ko azaroaren 9an onarturiko Estatutuek; Alarde Fundazioa Hondarribiak uneoro indarrean duen Alarde Tradizionaleko Ordenantza Pribatuak; eta azkenik, jarraian datorren Barne Araudiak arautuko dute.

2. Artikulua

Gora Arrantzale Gazteak Konpainia honako hauek osatzen dute:

- Kapitain bat.
- Hiru Teniente.
- Banderadun bat.
- Kantinerarekin doan Sarjentua.
- Hiru Bandako Kabo.
- Bi Atzeko Kabo.
- Kantinera bat.
- Banda (txibilito, erredoble eta partxeak)
- Tropa (gizon armatuak)
- Kuberoak

Kantineraren salbuespenarekin, Konpainia hau gizonez osatuta egongo da.

3. Artikulua

Gogorazten den ekitaldia kontuan hartuz, beharrezkoa den duintasuna eta errespetua mantenduz desfilatuko da. Alarde egunean itxura gordeko da, eta ezingo dira soinean eraman pegatinak, bereizgarriak, etab.

Horrez gain, Alardeko Agintaritzza Batzarrak (*Junta de Mandos* delakoa) eta Konpainiako Agintariek emandako agindu eta ohar guztiak obeditu beharko dira.

4. Artikulua

8 urte baino gehiago dituztenak Gora Arrantzale Gazteak Konpainian desfilatu ahal izateko, lehenik eta behin **ASOCIACION CULTURAL "COMPAÑÍA GORA ARRANTZALE GAZTEAK" DEL ALARDE TRADICIONAL DE HONDARRIBIA** Kultur Elkarteko bazkide izan beharko dira. Bazkide eskaera Zuzendaritza Batzordeari luzatu beharko zaio, honek onartu dezan. Adin txikikoek, guraso edo tutoreen baimena beharko dute.



Las edades mínimas para poder desfilar con esta Compañía en el Alarde de Hondarribia son:

- Cuberos: 6 años
- Txibilitos: 10 años. Asimismo, deberá tener una de antigüedad de 4 años como cubero.
- Redobles y parches: 16 años.
- Paisanos armados: 18 años.

Artículo 5.

Para poder desfilar el día 8 de septiembre se deberá estar al corriente de pago de las cuotas anuales. La Asamblea General de Socios será la encargada de estipular la cuantía de la cuota anual.

Los cuberos solo deberán pagar la cuota el primer año.

Artículo 6.

La indumentaria de la Compañía (a excepción de los Mandos y la Cantinera) se compone de lo siguiente:

- Boina roja.
- Pañuelo blanco.
- Casaca azul mahón.
- Pantalón blanco.
- Alpargatas blancas con cita blanca.

MANDOS

Artículo 7.

El Capitán y los tres tenientes como mandos de la Compañía son su máxima autoridad y responsables de su buen funcionamiento.

Podrán ser mandos de esta Compañía aquellos que cumplan las condiciones que siguen:

- Ser mayor de edad.
- Ser nativo de Hondarribia.
- Ser arrantzale (aquellos que hayan tenido que dejar el mar por incapacidad o enfermedad que le impida ejercer de arrantzale son válidos para dicho puesto).
- Haber desfilado durante un mínimo de 15 años en la Compañía.

Artículo 8.

El Capitán es la máxima autoridad de la Compañía, y su vez ostenta la Presidencia de la Asociación. Al ser nombrado Capitán, elegirá a los tres Tenientes entre los candidatos presentados por la Asamblea General de Socios.

Artículo 9.

Los tres Tenientes de la Compañía son la máxima autoridad tras el Capitán. Estos deben ayudar en todo momento al Capitán a dirigir la Compañía. Asimismo, deberán realizar todas aquellas tareas que el Capitán les encomiende para el buen desarrollo del Alarde.

Artículo 10.

Su vestimenta está compuesta por:

- Boina roja.
- Camisa blanca.

Konpainia honetan Hondarribiko Alardean parte hartzeko gutxieneko adinak honako hauek dira:

- Kuberoak: 6 urte
- Txibilitoak: 10 urte. Gainera, kubero gisa 4 urteko antzintasuna eduki beharko du.
- Erredoble eta partxeak: 16 urte.
- Soldaduak: 18 urte.

5. Artikulua

Irailaren 8an desfilatu ahal izateko, urteko kuota egunean eduki beharko da. Bazkideen Batzar Orokorra da urteko kuotaren zenbatekoa ezartzeko arduraduna.

Kuberoek lehenengo urtean soilik ordaindu beharko dute kuota.

6. Artikulua

Konpainiaren jantzia edo janzkera (Agintariena eta Kantinerarena izan ezik) honako hau da:

- Txapel gorria.
- Zapi zuria.
- Alkandora mahoi urdina.
- Galtza zuriak.
- Zinta zuridun alpargata zuriak.

AGINTARIAK

7. Artikulua

Kapitaina eta 3 Tenienteak Konpainiako agintari izanik, bere autoritate gorena dira eta bere funtzionamendu egokiaren arduradunak.

Konpainiako agintari izan daitezke jarraian datozen baldintzak betetzen dituztenak:

- Adinez nagusia izan.
- Hondarribian jaio izana.
- Arrantzalea izan (arrantzale lana ezgaitasun edo gaixotasun baten ondorioz utzi dutenei, arrantzale izaera mantenduko zaie).
- Konpainia honekin 15 urtez (edo gehiago) desfilatu izana.

8. Artikulua

Kapitaina Konpainiako agintari gorena izateaz gain, Elkarteko Lehendakaria da. Lehendakari eta Kapitain izendatzen dutenean, Bazkideen Batzar Orokorrak proposatutako izenen artetik hiru Tenienteak hautatuko ditu.

9. Artikulua

Kapitainaren ostean, hiru Tenienteak Konpainiako autoritate gorena dira. Tenienteek, Kapitainari Konpainia zuzentzen lagunduko diote. Honez gain, Kapitainak Alardearen garapen egokia ziurtatzeko eskatzen dien guztiarekin bete beharko dute.

10. Artikulua

Bere janzkera honako hau da:

- Txapel gorria.
- Alkandora zuria.



- Chaqueta negra con galones dorados en los puños (el Capitán dos y los Tenientes uno).
- Pañuelo blanco.
- Pantalón blanco.
- Alpargatas blancas con cinta blanca.

También portan un sable.

ABANDERADO

Artículo 11.

El Abanderado encabeza la Compañía durante el Alarde, y es el responsable de portar y custodiar la bandera de la Compañía.

El Abanderado es designado por el abanderado saliente y el Capitán y por el tiempo que cada Abanderado considere oportuno siempre y cuando sus condiciones psicofísicas sean las adecuadas.

SARGENTO

Artículo 12.

El Sargento que acompaña a la Cantinera es uno de los dos acompañantes de la Cantinera y es un soldado elegido por ella. Es un cargo honorífico sin potestad ninguna. Entre sus funciones están la de acompañar a la Cantinera durante la celebración del Alarde.

El Sargento lucirá un galón dorado en la parte izquierda de su casaca.

CABOS DE BANDA

Artículo 13.

La Compañía tendrá tres Cabos de Banda, siendo estos los encargados de dirigir a la Banda. Cada uno de ellos tocará un instrumento diferente (txibilito, redoble y parche).

Será su responsabilidad el buen hacer de la Banda durante los ensayos y el Alarde. Asimismo, deberán acatar las órdenes de los Mandos y ayudarles en todo aquello que les sea solicitado.

Los Cabos de Banda lucirán un galón verde en la parte izquierda de su casaca.

Artículo 14.

Los Cabos de Banda son nombrados por el Capitán por tiempo indefinido. Podrán ser Cabos de Banda de esta Compañía aquellos que cumplan las condiciones que siguen:

- Haber desfilado durante los últimos 5 años en la Banda.
- Conocer e interpretar perfectamente las marchas del Alarde.

CABOS DE COLA

Artículo 15.

Los 2 Cabos de Cola desfilan junto a los paisanos armados como parte de la Tropa y son nombrados por el Capitán por tiempo indefinido.

- Txaketa beltza eta urrezko tira mahukatan (kapitainak bi eta Tenienteek bat).
- Zapi zuria.
- Galtza zuria.
- Zinta zuridun alpargata zuriak.

Ezpata daramate.

BANDERADUNA

11. Artikulua

Banderaduna Konpainiaren aurrealdean doa Alardean zehar eta Konpainiako bandera eramateaz eta zaintzeaz arduratzen da.

Postua uzten duen Banderadunak eta Kapitainak izendatzen dute banderadun berria, hau nahi duen bitartean Banderadun izango delarik, beti ere, bere egoera psikofisikoa egokia bada.

SARJENTUA

12. Artikulua

Sarjentua Kantineraren ondoan doazen bietako bat da eta Kantinerak aukeratutako soldadu bat izango da beti. Ohorezko kargua da, hau da, ahalmen gabekoa. Bere zeregin nagusia Kantinerari laguntzea da.

Sarjentuak urrezko galoi bat darama bere alkandorako ezker aldean.

BANDAKO KABOAK

13. Artikulua

Konpainiak hiru Bandako kabo izango ditu eta hauen eginbehar nagusia Banda zuzentzea izango da. Bakoitzak instrumentu bat joko du (txibilitoa, erredoblea eta partxea).

Bandaren funtzionamendu egokiaz arduratuko dira entseguetan eta Alarde egunean. Konpainiako agintariei obedituko diote eta behar duten guztian lagunduko diete.

Bandako Kaboek galoi berde bat daramate bere alkandorako ezker aldean.

14. Artikulua

Bandako Kaboak Kapitainak izendatuko ditu denbora mugagabez. Konpainia honetan Bandako Kabo izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Aurreko 5 urteetan Bandan desfilatu izana.
- Alardeko martxak ondo ezagutzea eta jotzea.

ATZEKO KABOAK

15. Artikulua

Konpainiako 2 Atzeko Kaboak gainontzeko gizon armatuekin desfilatzen dute Tropako parte bezala eta Kapitainak izendatzen ditu denbora mugagabez.



Será su responsabilidad colaborar con los Mandos en el mantenimiento del orden y disciplina entre los miembros de la tropa durante el Alarde, así como supervisar la marcha de los cuberos. Les ayudaran en su labor otros tres paisanos armados que designe el Teniente que se encuentre al final de la Compañía.

Los Cabos de Banda lucirán un galón verde en la parte izquierda de su casaca.

CANTINERA

Artículo 16.

La Cantinera es la única mujer de la Compañía y cada año se escoge una nueva. Desfila entre la Banda y la Tropa escoltada por dos paisanos armados, ambos de su elección.

Artículo 17.

La Cantinera es elegida por la Asamblea General de Socios cada 25 de julio. Podrán presentarse a Cantinera aquellas que cumplan las condiciones que siguen:

- Ser soltera.
- Tener los 20 años cumplidos el día del Alarde.
- Ser familiar o pareja sentimental de algún miembro de la Asociación.
- Ser de Hondarribia.
- No haber desfilado en ningún Alarde.

Artículo 18.

La elección de la Cantinera se realiza mediante el procedimiento que sigue:

1. La aspirante a Cantinera deberá ser presentada por un miembro de la Asociación con fotografía y copia del D.N.I. en un sobre cerrado poniendo el nombre de la candidata y el nombre del miembro que la presenta, en el plazo que la Junta Directiva establezca.
2. La Asamblea General de Socios procederá a la votación secreta de la candidata a Cantinera entre las presentadas.
3. Una vez depositados los votos en una bolsa, un miembro de la Junta Directiva extraerá los votos con los nombres de la cantinera elegida y la suplente o segunda cantinera, siendo el primer voto el de la cantinera elegida para ese año.

Artículo 19.

La Cantinera deberá lucir la vestimenta que sigue el día del Alarde:

- Boina roja
- Guerrera azul Mahón.
- Pequeño delantal azul mahón con dos ribetes dorados.
- Falda plisada con una cinta horizontal del mismo color que la guerrera y el delantal.
- Pololos.
- Botas blancas de caña alta atadas en forma trenzada.

Bere arduren artean daude Agintariei gizon armatuen artean ordena eta diziplina ezartzen laguntzea eta kuberoen martxa ikuskatzea. Zeregin honetan, Konpainiaren amaieran doan Tenienteak hautatutako hiru gizon armaturen laguntza izango dute.

Atzeko Kaboek galoi berde bat daramate bere alkandorako ezker aldean.

KANTINERA

16. Artikulua

Kantinera Konpainiako emakume bakarra da, urtero bat hautatzen delarik. Banda eta Troparen artean desfilatzen du, alde bakoitzean bere aukerako bi gizon armaturen laguntzaz.

17. Artikulua

Uztailaren 25ean, Bazkideen Batzar Nagusiak hautatzen du urteko Kantinera. Kantinera hautagai izateko bete beharreko baldintzak hauek dira:

- Ezkongabea izan.
- Alarde egunean 20 urte beteta edukitzea.
- Elkarteko kide baten senide edo bikotea izan.
- Hondarribian jaio izana.
- Inongo Alardean parte hartu ez izatea.

18. Artikulua

Kantineraren hautaketa jarraian azaltzen den prozeduraren bitartez egingen da:

1. Kantinera hautagaia Elkarteko kide batek aurkeztu beharko du neskaren datuak, N.A.N.aren fotokopia, argazkia eta nork aurkeztu duen esanez gutun-azal itxi batean Zuzendaritza Batzordeak ezartzen duen epean.
2. Bazkideen Batzar Orokorreko kideek aurkeztutako hautagaien artean bozketa sekretua egingo dute.
3. Bozka guztiak poltsa batean sartu ostean, Zuzendaritza batzordeko kide batek bi izen bat aterako ditu, urteko Kantinerarena lehendabizi eta bere ordekoarena ondoren.

19. Artikulua

Kantinerak honako jantziak eramango ditu Alarde egunean:

- Txapel gorria.
- Jaka urdin mahoia.
- Aurreko mantal txiki urdin mahoia urrezko muga bikoitzekin.
- Beheko aldean kolore urdin mahoiko zinta bat duen gona zuria.
- Pololo zuriak.
- Aurrealdea txirikordatuta duten kanaberako bota txuri luzeak.



También deberán portar:

- Una banda que cruza la guerrera con un dibujo en el centro y el nombre de la Cantinera y la fecha.
- Una pequeña barrica colocada al final de la banda que sirve como apoyo de la mano.
- Abanico.
- Guantes.

Artículo 20.

La Cantinera podrá utilizar el traje que la Asociación tiene en propiedad y efectuar los arreglos que crea convenientes, haciéndose cargo de los gastos originados por los mismos.

Así mismo tiene la obligación de devolver el traje limpio y planchado.

BANDA

Artículo 21.

La Banda está compuesta por txibilitos, redobles y parches. Su número estará limitado por la Junta Directiva.

La Compañía llevara un censo especial para los puestos de la Banda, quien no este ese censo no podrá desfilar en el Alarde junto a esta Compañía.

Artículo 22.

Los cuberos que tengan los 10 años cumplidos el día 8 de septiembre, tendrán preferencia para incorporarse a la Banda.

Artículo 23

Aquellas personas no asociadas que deseen participar en el Alarde con esta Compañía deberán realizar la solicitud correspondiente y esperar una respuesta de la Junta Directiva. Mientras tanto no podrán ensayar ni desfilar con esta Compañía.

Artículo 24.

Todo aquel que quiera cambiar de instrumento o pasar a desfilar como paisano armado deberá solicitarlo con antelación para que la Junta Directiva estudie si dicho cambio es posible.

ENSAYOS

Artículo 25.

Los días 3, 4 y 5 de Septiembre de cada año, los miembros de la Banda y la cantinera realizaran los ensayos previos al Alarde.

Estos ensayos se realizaran a la hora y lugar indicados por la Junta Directiva. Los miembros de la Banda deberán acudir a los ensayos con el polo de la Compañía y boina roja.

Artículo 26.

La asistencia a los ensayos es de carácter obligatorio. Aquel que en el plazo de 3 años se ausente injustificadamente de los ensayos y/o no haya pagado las cuotas anuales será borrado del censo de la Banda, perdiendo el derecho a desfilar en el Alarde con esta Compañía.

Horrez gain, honako hau eramango dute ere:

- Gorputza gurutzatzen dioen banda zuria, non erdialdean marrazki bat duen eta bere izena eta data datorren.
- Bandaren amaieran barrika txiki zintzilik.
- Abanikoa
- Eskularru zuriak.

20. Artikulua

Kantinerak Elkarateak bere jabetzan duen jantzia erabili ahal izango du eta beharrezkoak deritzon konponketak egin, beti ere, sor daitezkeen gastuak ordainduz.

Horrez gain, jantzia garbi eta lisatua itzuli beharko du.

BANDA

21. Artikulua

Honako hauek osatzen dute Konpainiako Banda: txibilitoak, erredobleak eta partxeak. Zuzendaritza Batzordeak Bandako kide kopurua mugatuko du.

Konpainiak Bandako postuetarako errolda berezi bat edukiko du eta bertan ez dagoena ezingo du Alardean Konpainia honekin desfilatu.

22. Artikulua

Irailaren 8an 10 urteak beteak dituzten kuberok Bandako kide izateko lehentasuna izango dute.

23. Artikulua

Bazkideak ez diren pertsonak konpainia honekin Alardean parte hartu nahi badute, dagokion eskaria egin beharko dute eta Zuzendaritza Batzordearen erantzunari itxaron. Bitartean ezingo dute Konpainia honekin entseatu ezta desfilatu.

24. Artikulua

Bandako kideek instrumentuz aldatu ahal izateko edo Tropara pasa ahal izateko, Zuzendaritza Batzordeari eskaera luzatu beharko dio aurretiaz aldageta hori posiblea den aztertzeko.

ENTSEGUAK

25. Artikulua

Irailaren 3, 4 eta 5ero Bandako kideak eta kantinerak Alardearen aurreko entseguak egingo dituzte.

Entseguak Zuzendaritza Batzordeak ezarritako orduan eta lekuan gauzatuko dira. Bandako kideak Konpainiako poloa eta txapel gorria jantzi beharko dute entseguetan.

26. Artikulua

Entseguetara agertzea derrigorrezkoa da. 3 urteetan entseguetara justifikazio gabe huts egiten duenak edo urteko kuotak ordaintzen ez dituenak, Bandako zentsutik ezabatua izango da eta ondorioz, Konpainia honekin Alardean desfilatzeko eskubidea galdu egingo du.



En el caso de que no pudiera justificar alguna de las ausencias o se negara a pagar las cuotas retrasadas, se procedería a expulsar a esta persona de la Asociación.

Hutsegiteren bat zuritu ezin badezake edo atzeratutako kuotak ordaindu nahi ez baditu, pertsona hau Elkartetik kanporatua izango da.

TROPA

Artículo 27.

Los miembros de la Tropa, los Cabos de Cola y el Sargento portaran en su hombro izquierdo una escopeta durante el Alarde. A poder ser, la escopeta deberá ser de cartuchos, aunque se permitirá el uso de otras escopetas.

Aquellas que no sean de cartuchos y puedan disparar no son aptas para la realización de salvas o descargas, por lo que deberán tener el cañón precintado.

Artículo 28.

Aquellos paisanos armados que porten escopeta de cartuchos operativa, solo podrán utilizar los cartuchos adquiridos a través de la Compañía. El uso de otro tipo de cartucho se realizará bajo la responsabilidad de cada uno y será sancionado por la Compañía y/o la Junta de Mandos del Alarde.

Artículo 29.

Los paisanos armados o miembros de la tropa realizaran el número de salvas o descargas que la Junta Directiva haya decidido previamente y de acuerdo con las instrucciones que los Mandos den en cada momento.

Los disparos o salvas fuera de los lugares designados y autorizados para las descargas serán motivo de sanción para el infractor, pudiendo darse la expulsión de la Compañía y de la Asociación. Asimismo, el infractor se hará de forma individual responsable de los daños que pudiera producir, tanto en su persona como en otras personas y bienes.

CUBEROS

Artículo 30.

Los cuberos desfilan al final de la Compañía portando al hombro un cubo. Dicho cubo deberá ser metálico, tener un asa y llevar escrito en su exterior "Gora Arrantzale Gazteak" con letras negras (pintadas o autoadhesivas).

La indumentaria de los cuberos es la misma que la de la Banda y la Tropa.

Artículo 31.

Para poder desfilan como cubero, algún ascendiente (familiar) del niño deberá pertenecer a esta Compañía en el momento de inscribirse.

EL ALARDE

Artículo 32.

La Compañía formara el cada 8 de septiembre en el lugar y hora que indique la Junta Directiva, para después ir a recoger a la Cantinera y partir a Gernikako Arbola.

TROPA

27. Artikulua

Tropako kideak, Atzeko Kaboak eta Sarjentuak Alardean zehar eskopeta bat eramango dute ezker sorbaldan. Ahal izan ezker, kartutxoak izan beharko du, baina bestelako eskopeten erabilera onartu egingo da.

Kartutxoak ez diren eskopetak, tiro egin badezake ez dira egokiak deskargak egiteko, eta horregatik kanoia zigitatuta eduki beharko dute.

28. Artikulua

Tiro egin dezaketen eskopetak erabiltzen dituzten gizon armatuek, Konpainia honen bitartez erositako kartutxoak erabili ahal izango dituzte soil-soilik. Bestelako kartutxoaren erabilera norberaren erantzukizunpean erabiliko dira eta Konpainia honek eta/edo Alardeko Agintaritzak Batzordeak bere erabilera zigortu egingo du.

29. Artikulua

Gizon armatuek Zuzendaritza Batzordeak aurretiaz adosturiko deskarga kopurua egingo dituzte Agintariek une bakoitzean emanen dituzten aginduei jarraiki.

Ezarritako lekuetatik kanpo tiro edo salbak botatzeak zigorra suposatzen du arau-hauslearentzat, Konpainiatik kaleratua izatera iritsi dailekeelarik. Era berean, arau-hausleak modu pertsonalean aurre egin beharko lieke eragindako kalteei, bere burua edo beste pertsona edo ondasun bati eragindakoa izan.

KUBEROAK

30. Artikulua

Kuberoak Konpainiaren bukaeran desfilatzen dute eta kubo bat daramate sorbaldan. Kuboa kirtenduna eta metalezkoa izateaz gain, bere kanpoaldean "Gora Arrantzale Gazteak" beltzez idatzia eduki beharko du (margotuta edo itsatsita).

Kuberoen jantzia Banda eta Tropako kideen berdina da.

31. Artikulua

Kubero gisa desfilatu ahal izateko, haurren gorako senideren bat Konpainia honen kide izan beharko du izena ematerako orduan.

ALARDEA

32. Artikulua

Konpainia irailaren 8 guztietan Zuzendaritza Batzordeak esandako orduan eta lekuan bildu egingo da, ondoren Kantinera jaso eta Gernikako Arbolarara abiatuko da.



Los miembros de la Compañía tienen la obligación de desfilar en Guadalupe.

Artículo 33.

Se consideraran faltas de comportamiento durante el Alarde:

- El desfilar incorrectamente repetidas veces y haciendo caso omiso de las indicaciones de los Mandos.
- La desobediencia a las órdenes de los Mandos.
- El hacer descargas en sitios no permitidos o en situaciones no indicadas por los Mandos.
- Cualquier otra causa que suponga el desprestigio de la Compañía o el Alarde.

En lo referente al presente Reglamento, se debe entender por Alarde todo aquel periodo de tiempo en el que la Compañía Gora Arrantzale Gazteak está formada durante el día 8 de septiembre.

Artículo 33 bis

Si durante el Alarde se detectasen faltas de comportamiento por parte de algún miembro de la Compañía, los Mandos procederán expulsar de la formación a dicha persona.

Dicha expulsión supone no poder desfilar el resto del día como miembro de la Compañía Gora Arrantzale Gazteak.

Artículo 34.

La Junta Directiva decidirá que sanción imponer en cada caso, atendiendo a la gravedad de la falta. Las sanciones pueden comprender desde la suspensión temporal de los derechos, hasta la separación definitiva.

El sancionado podrá recurrir ante la Asamblea General la sanción impuesta.

Artículo 35.

En caso de discrepancia entre el texto en euskara y castellano, prevalecerá el de euskara.

Si aun así existieran dudas sobre la interpretación del presente texto, la Asamblea General será quien imponga el criterio de interpretación.

Konpainiako kideak Guadalupean desfilatzeko obligazioa dute.

33. Artikulua

Alardean, honako portaera hauek hutsegitez hartuko dira:

- Sarritan modu ezegokian desfilatzea, Agintarien jarraibideei entzungor eginez.
- Agintarien aginduak ez betetzea.
- Debekatutako lekuetan edo Agintariak ezarri ez dituzten egoeretan tiro egitea.
- Konpainia honentzat eta Alardearentzat ospe-galtzea suposatzen duten jarrerak.

Araudi honi dagokionez, Alarde deritzo irailaren 8an Gora Arrantzale Gazteak Konpainia formatua dagoen denbora guztiari.

33 bis artikulua

Alardean zehar Konpainiako kideen aldetik portaera ezegokiak antzematen badira, Konpainiako Agintariak pertsona hauek formaziotik kanporatuko dituzte.

Kanporatze honek, egun horretan Gora Arrantzale Gazteak Konpainiarekin ezin desfilatzea suposatzen du.

34. Artikulua

Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du kasu bakoitzean zein zigor ezarri, hutsegitearen larritasuna kontuan hartuz. Zigorrek eskubideen aldi bateko gabetzetik, behin betiko kanporatzeraino joan daitezke.

Zigortutakoak, zigorra Batzar Orokorren aurrean helegiteko aukera izango du.

35. Artikulua

Euskarazko eta Gaztelerazko testuen artean desadostasunak baleude, euskarazkoa gailenduko da.

Hala ere, testuaren interpretazioaren inguruko zalantzak mantentzen badira, Batzar Orokorra izango da interpretazio irizpidea ezartzeko arduraduna.

Hondarribian, 2018ko uztaiaren 25ean
En Hondarribia a 25 de julio de 2018